

18/06 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Juan Carlos Jauregui
M^a Teresa Ojanguren
Mikel Pagola
Ismael Redondo
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko ekainaren 6ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Euskadiko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatuko Zentroa (TKNIKA) arautzeko eta bertako lanpostu zerrenda onartzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Abenduaren 1eko 222/2015 Dekretua, Euskadiko Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikatuko Zentroa (TKNIKA) sortzen eta bertako lanpostu zerrenda onartzen duena.

Arauren proiektuak justifikatzen du organismo horren aldaketa, aldaketa horren bidez erantzuna emateko laugarren iraultza industrialak sortutako prestakuntza-premia berriei eta, bide horretatik, baita ere mantendu eta hobetzeko Euskadiko industria-sarearen lehiakortasuna.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 19 artikulua dauzka, 2 xedapen gehigarri, xedapen iragankor 1, xedapen indargabetzaile 1 eta azken xedapen 1:

1. artikulua TKNIKAren izaera zehazten du.
2. artikulua onartu egiten du Eranskinean jasotako lanpostu zerrenda.
3. artikulua bere helburuak eta funtzioak ezartzen ditu.
4. artikulua plan estrategikoa eta urteko plana zehazten ditu.

5. artikulua antolakuntzaren egitura finkatzen du (zuzendaria eta eremuko zuzendariak, dinamizatzaileak eta administratzailea) eta 9 ekintza-eremuak zerrendatzen ditu.

6. artikulutik 14. enera bitarteko artikuluek eremu horietako funtzioak finkatzen dituzte, eta baita ere eremuko zuzendariarenak. Bestalde, 15. artikulua zuzendari exekutiboaren funtzioak zehazten ditu, eta 16. ak administratzailearenak.

17. artikulua esleitutako aurrekontuari eta kontratazio aukerei buruzkoa da.

18. artikulua zentroari atxikitako irakasleen hornikuntza sistemari buruzkoa da, eta lanpostuen balorazioa ere aipatzen du.

19. artikulua dio TKNIKA zentroak ez duela ondare propiorik, baizik eta Hezkuntza Sailak bere esku jarritako ondasunak izango dituela.

Lehen xedapen gehigarriak ezartzen du aurreko lanpostu zerrendaren eta II. eranskinean jasotako LPZ berriaren arteko baliokidetzak. Bigarren xedapen gehigarrian aipatzen da posible dela langile kolaboratzaileak izatea kasuan kasuko Sailburuordetzak baimendutako proiektu zehatzak gauzatzeko eta dinamizatzeko.

Xedapen iragankorrak erregimen iragankor bat ezartzen du, gerta daitekeelako gaur egun okupatuta dauden lanpostu batzuk ez izatea baliokidetzarik argitaratutako lanpostuekin.

Xedapen indargabetzaileak indarrik gabe uzten du abenduaren 1eko 222/2015 Dekretua, 1. artikuluko 1. atala eta azken lehen xedapena izan ezik.

Azken bigarren xedapenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluak 15/10 Irizpenean eman zuen TKNIKA sortzeko dekretu proiektuari buruzko bere iritzia, non positiboki baloratu baitzuen dekretuak TKNIKAREN egitura egokitzeko eta aldatzeko eginiko proposamena.

Hiru urte baino gutxiago igaro dira abenduaren 1eko 222/2015 Dekretua onartu zenetik, eta ekintza-eremuetan eragina duen beste aldaketa bat aurkeztu zaigu.

Hauek dira arauan sartu nahi diren aldaketak:

- Egungo 5 eremuak aldatzea eta eguneratzea.
- Lau eremu berri sortzea, eta beraz, 4 zuzendari postu berri sortzea.
- Administratzaile postua sortzea

- Dinamizatzailerik postua sartzea LPZn, bere funtzioak errotuta daudelako eta ezinbestekoak direlako Zentroaren helburuak eta funtzioak garatzeko.

Kontseiluak ez dauka eragozpenik egituran proposatzen diren aldaketak egiteko, eta espero du baliagarri izango direla Euskadiko Lanbide Heziketako Sistema hobetzeko.

Halere, deigarria da lanpostu desberdinetarako esperientzia-urte kopuru desberdina eskatzea, hori justifikatzeko argudiorik gabe.

Zuzenketa bat:

15.2 artikuluan, hauexek dio: *17. artikuluekin bat aukeratutako pertsona izendatuko da zuzendari exekutibo.*

Erreferentzian 18. artikulua aipatu behar da, hor lantzen baita gaia.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2018ko ekainaren 7an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA